

TXOSTENA

Udal Finantzaketa

Udalen parte-hartzea
zerga itunduetan.
2018ko LIKIDAZIOA



Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2019ko otsaileko bilera

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren urteko lehenengo bilera egin zen otsailaren 14ko ostegunean. Kontseiluan honakoek hartzen dute parte: Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta EUDELeko hiru udal ordezkariak, **Imanol Landa**, EUDELeko elkarteburua eta **Getxoko** alkatea, **Josune Irabien**, Amurrioko alkatea eta **Eneko Maioz**, Oresako alkatea (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrien izenean).

2018ko ekitaldia ixtean, zerga itunduen ondoriozko Foru Aldundien diru-bilketa finkatua **14.981,5 milioi eurokoa** izan zen. Hau da, urte arteko diru-bilketak %3,5 egin du gora.

Kontseiluko bileran, Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta Udalek, Egokitzapenerako Udalek Funts Orokorreko eskumeneko den **Ez Ohiko funts bat** sortzeko akordioa lortu zuten. Funts berriak nabarmen murrizten ditu berriro ere lurralde artean sortu daitezken desorekak.

Horrela, Lurralde Historikoetako batek edo gehiagok Egokitzapenerako Funts Orokorren egungo mugarekin bere koefiziente horizontalaren %99 lortzen ez badu aktibatuko da eta, hala denean, ekitaldiaren likidazioan aplikatuko da.

Funts horren zenbatekoaren muga banatu beharreko baliabideen %0,45koa izango da. Egungo diru-bilketa aurreikuspenak kontuan izanda, 60 milioi euro izango lirateke. Ekarpen horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak %50 jarriko du, eta gainerako %50a Lurralde Historikoen kargura joango da, bakoitzaren koefiziente horizontalaren arabera.

Bilera amaitu ondoren, EUDELeko elkarteburuak, **Imanol Landak**, positibotzat jo zuen Euskadiko erakunde guztien artean lortutako adostasuna, EAEko hiru erakunde-mailen arteko "erantzukizunaren eta elkarrizketaren" adibide gisa. *"Beste behin ere, agerian geratu da Euskadin toki-erakundeok badakigula ados jartzen, finantziazioaren arloari bezalako gai garrantzitsuei dagokienez. Adostasuna da jarraitu beharreko bidea; alegia, egonkortasunaren eta erakundeen arteko mailan egiten den baterako lanaren bidea, pertsonen, udalerrien eta lurraldeen zerbitzura".*



EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune plaza, 5
48009 BILBAO
Tel.: 94 423 15 00
e-mail: eudel@eudel.eus
www.eudel.eus

Laburpena 164zk.

4

Euskal Foru Ogasunen Zerga Itunduen Bilketa

- 2018ko likidazioa
- Euskal foru ogasunen zerga itunduen bilketen bilakaera (2006 – 2019)
- Egokitzapenerako Funts Orokorra. 2018ko likidazioa
- Ezohiko funtsa

9

Udal Finantzaketako Foru Funtsak

10

Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseilua

- 2018ko likidazioa
- Obra eta zerbitzuen Foru Plana eta Obra txikien eta auzolanen Plana
- Aurreko ekitaldietako likidazioak - Toki Erakundeen Partaidetza Egonkortzeko Funtsa (TEPEF)

12

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua

- 2018ko likidazioa
- Aurreko ekitaldietako likidazioak

13

Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseilua

- 2018ko likidazioa
- Aurreko ekitaldietako likidazioak

14

Baldintzatu gabeko udal finantzaketarako foru funtsak (€/biztanle)

16

Eranskinak

- TEFFF: 2018an kontura emandako kopuruak eta 2018ko likidazioa, udalen arabera banakatuta €
- UDALKUTXA: 2018an kontura emandako kopuruak eta 2018ko likidazioa, udalen arabera banakatuta €
- UFFF: 2018an kontura emandako kopuruak eta 2018ko likidazioa, udalen arabera banakatuta 2018 €

Euskal Foru Ogasunen Zerga Itunduen Bilketa

2019ko otsailaren 14an bildutako Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan 2018ko ekitaldiari dagozkion zerga itunduen bilketen itxiera, Foru Aldundien Ekarpenen likidazioa eta Egokitzapenerako Funtz Orokorraren likidazioa onetsi ziren.

2018ko likidazioa


Oro har, zerga itunduen diru-bilketa aurrekontu-aurreikuspena baino **%4,10 handiagoa** izan da. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan onetsitako kopuruak, **2018. urteko zerga itunduen bilketari dagokionez**, ondorengo hauek dira: (**1. taula** eta **1. grafikoa**)

EAE osoa aintzat hartuta, zerga itunduen diru-bilketa aurrekontu-aurreikuspena baino **%4,10 handiagoa** izan da. Araban, bilketa aurreikusitakoa baino **%4,73 handiagoa** izan da, Bizkaian **%4,24 handiagoa**, eta Gipuzkoan **%3,57 handiagoa**.

1.TAULA	2018ko aurrekontua €	2018ko likidazioa €	Aldea €	%
Araba	2.295.522.273	2.404.083.498	108.561.225	%4,73
Bizkaia	7.425.347.576	7.740.095.439	314.747.863	%4,24
Gipuzkoa	4.670.408.151	4.837.365.587	166.957.436	%3,57
EAE GUZTIRA	14.391.278.000	14.981.544.524	590.266.524	%4,10

1.GRAFIKOA


Zerga itunduen 2018ko diru-bilketa (milioi eurotan)



Euskal foru ogasunen zerga itunduen bilketen bilakaera (2006 – 2019)

2.GRAFIKOA

Euroak milioika / Bilketa zerga itunduen arabera



Goiko grafikoan 2006tik 2019ra bitarteko urteetan zerga itunduen bilketan izandako bilakaera ikus dezakegu, nahiz eta zehaztu beharra daukagun 2019ko datua bilketaren aurrekontuari dagokiola.

2008. eta 2009. urteetan, krisi ekonomikoaren ondorioz, epealdiko kopururik apalenak bildu ziren. Zehazki, **2009. urtean** izan zen **bilketarik** txikiena, **10.792 milioi euroko** zenbatekoarekin. Bilketako eragin negatibo horrek bere isla izan zuen ondoren Udal Finantzaketako Foru Funtzak gutxitzean, partekatutako arriskuaren printzipioa aplikatzearen ondorioz.

2013ko ekitaldiaz geroztik, errekupeazio aldi bat hasi zen; hala, bilketaren gehikuntza hazkorrak iraun egin du, gorakada nabarmen batekin 2017tik 2019ra bitarteko aldian. Zehazki, onetsitako datuen arabera, **2018ko diru-bilketa 14.981 milioi eurokoa izan da,** eta **2019rako bilketa-aurreikuspena 15.265 milioi eurokoa da.**

Egokitzapenerako Funts Orokorra. 2018ko likidazioa

Ekarpen-koefizientearen eta lurralde bakoitzeko bilketakoaren arteko desberdintasunak lurralde-disfuntzioak eragiten ditu finantzaketan.

Egokitzapenerako Funts Orokorrak (EFO) disfuntzio horiek leuntzeko aukera ematen du, eta bermatu egiten du Lurralde Historiko bakoitzerako Euskal Herriko bilketa osoaren parte-hartze erlatiboa, Funtserako eman beharreko kopurua kenduta, ekarpen-koefiziente horizontalaren %99ra iritsi ahal izatea.

2018. urterako aurrekontuan sartutako Egokitzapenerako Funts Orokorra 125,1 milioi eurokoa izan zen, eta aurreikusitako banaketa 53,7 milioi eurokoa Arabarako eta 71,4 milioi eurokoa Gipuzkoarako.

2018ko likidazioan onetsitako Egokitzapenerako Funts Orokorra 133,7 milioi eurokoa da guztira. Funts horren finantzaketaren %70,04 Eusko Jaurlaritzari dagokio eta gainerako %29,96 Foru Aldundiei, udalei eta beste toki erakunde batzuei. **2.** eta **3. tauletan** ikusgai daude funtserako egindako ekarpenak eta horien banaketa.

3. taulan ikus daitekeen bezala, Funtsa honako hauen artean banatzen da: Araba (Foru Aldundia, udalak eta beste toki erakunde batzuk), 39,1 milioi eurorekin, eta Gipuzkoa (Foru Aldundia eta udalak), 94,7 milioi eurorekin.

2018rako Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbatekoa **133,7 milioi eurokoa** izatea erabaki zen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan, eta Arabako lurraldearen (**39,1 milioi euro**) eta Gipuzkoako lurraldearen (**94,7 milioi euro**) artean banatzea.

2. TAULA

EFOrako ekarpenak guztira

EFOrako ekarpenak guztira	2018ko likidazioa €
Eusko Jaurlaritza (%70,04)	93.660.980
Foru Aldundiak eta udalak (%29,96)	40.064.006
Araba	6.586.522
Bizkaia	20.180.240
Gipuzkoa	13.297.244
GUZTIRA	133.724.986

3. TAULA

EFOren kobrantzak guztira

EFOren banaketa	2018ko likidazioa €
Araba	39.065.138
Bizkaia	-
Gipuzkoa	94.659.848
GUZTIRA	133.724.986

Ezohiko konpentsazioa

2018ko ekitaldia ixteko azken emaitzak ezagututa, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan ezohiko konpentsazio bat ematea erabaki zuten; horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak 2.827.070,50€ emango ditu eta Bizkaiko Lurralde Historikoak 2.827.070,50€, Arabako eta Gipuzkoako Lurralde Historikoen artean bana ditzaten, hurrenez hurren 1.613.112 eta 4.041.029 euroko zenbatekoak, hiru Lurraldeak euren koefiziente horizontalaren %99ra iristea bermatu ahal izan dadin.

Ezohiko funtsa

“Ekarpenen Legea”, berria, onesteko konpromisoa mantenduz, 2019 - 2021 epealdian aplikagarria izango den Ezohiko Funts bat eratzea erabaki zuen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak. Ekitaldi bakoitzaren likidazioan aplikatzekoa izango da, baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko metodologia berria indarrean sartzen den bitartean.

Hala, aktibatu egingo da hori, baldin eta Lurralde Historiko bat edo batzuk, ekitaldiko Egokitzapenerako Funts Orokor likidatuari egindako ekarpen garbia kendu ostean, ez badira haien koefiziente horizontalaren %99ra iristen. Funts horren zenbatekoaren muga izango da ekitaldia itxitakoan banatu beharko diren baliabideen %0,45.

Ekarpena

Funtserako ekarpena Eusko Jaurlaritzari dagokio %50ean, eta gainerako %50a Foru Aldundiei (udalak eta tokiko beste erakunde batzuk barruan direla), Lurralde bakoitzeko koefiziente horizontalen arabera.

Gainera, ondorengo hipotesi hauek araututa daude xedapenen 4. eta 5. paragrafoetan:

“4. Baldin eta lehenagoko puntuan xedatua aplikatzeagatik Ezohiko Funtsaren onuraduna ez den Foru Aldundiren batentzat egokitutako ekarpenak haren diru-bilketa errearen eta bere koefiziente horizontalaren %99 Euskadiko diru-bilketa osoari aplikatzearen emaitzaren arteko aldeari dagokion zenbatekoa gainditzen badu, alde horren zenbatekoan finkatuta geldituko da haren ekarpena.

Ezohiko Funtsaren onuraduna izan gabe egoera horretan ez dagoen Foru Aldundiak bere gain hartuko du gainerako zenbatekoa ordaintzea, hiru Foru Aldundien ekarpena osatu arte.

5. Baldin eta ekitaldia ixtean, bi Foru Aldundiren diru-bilketa erlatiboa bakoitzari dagokion koefiziente horizontalaren %99ren azpian kokatuta, Ezohiko Funtsaren zenbateko osoa nahikoa ez bada biak koefiziente horizontalaren %99ra iristeko, Ezohiko Funtsaren banaketa, Foru Aldundi horien ekarpena alde batera utzita, horietako bakoitzak %99 horretara iristeko behar duen zenbatekoarekiko era proportzionalan egingo da”.

Udal Finantzaketako Foru Funtsak

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren bileraren ondoren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeei, hurrenez hurren, dagozkien Finantzen Lurralde Kontseiluak egin dira.

Bilera horietan helarazitako datuen arabera, honako hau da 2018rako Udal Finantzaketarako Foru Funtzen likidazioa: **(4. taula)**

Foru Funtzen likidazioa
1.613,6 milioi eurokoa da orotara
hiru lurraldeetarako, hasierako
aurreikuspenak baino
%6,02 handiagoa.

4.TAULA

	2018ko aurrekontua €	2018ko likidazioa €	Aldea €	%
Araba- TEFFF	216.930.100	229.547.051	12.616.951	%5,82
Bizkaia - Udalkutxa	819.321.375	869.492.575	50.171.200	%6,12
Gipuzkoa - UFFF	485.806.651	514.574.097	50.171.200	%5,92
GUZTIRA	1.522.058.126	1.613.613.723	91.555.597	%6,02



Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseilua

EUDELen ordezkariak:

José Javier Martínez, IRUÑA OKako Alkatea
 Josune Irabien, AMURRIOko Alkatea
 Pedro San Vicente, HARANAKo Alkatea
 Borja Monje, MAÑUETAKo Alkatea
 M^a Natividad López de Munain, BURGELUKo Alkatea
 Itziar Gonzalo, VITORIA-GASTEIZko Alkateordea
 Unai Gutiérrez, ZUIAKo Alkatea

Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseilua

2019ko otsailaren 19an bildutako Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseiluan, 2018ko ekitaldirako Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren (TEFFF) likidazioa zehaztu zen.

2018ko likidazioa

TEFFFaren likidazioa 229,5 milioi eurokoa da guztira: hasierako aurrekontuarekiko %5,82ko igoera eragin du horrek. **(5. taula)**

5.TAULA	2018ko aurrekontua €	2018ko likidazioa €	Aldea €	%
Araba- TEFFF	216.930.100	229.547.051	12.616.951	%5,82

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2019ko otsailaren 14an hartutako erabakitik eratorritako ezohiko konpentsazio gisa azaldutako 1.613.112 euroko zenbatekoa jaso izana sartzen da likidazioan.

2019ko ekitaldian zehar, Arabako toki erakundeek 2,9 milioi euro gehiago jasoko dituzte, 2018ko ekitaldian zehar kontura emanda jaso duten kopuruaz gain. Vitoria-Gasteizko udala da salbuespena; izan ere, 9,7 milioi euroko likidazio positiboa TEPEFren konpentsaziora bideratuko da.

Obra eta zerbitzuen Foru Plana eta Obra txikien eta auzolanen Plana

Obra eta zerbitzuen Foru Planaren likidazioa 16.085.684 eurokoa da guztira; beraz, aurrekontuan jasotakoa baino 884.144 euro gehiago. Obra txiki eta Auzolanen zuzkidura ez da likidatu; beraz, 2.054.260 eurokoa da horri dagokion kopurua, eta bat dator 2018ko aurrekontuan jasotakoarekin.

Aurreko ekitaldietako likidazioak - Toki Erakundeen Partaidetza Egonkortzeko Funtsa (TEPEF)

Toki Erakundeen Partaidetza Egonkortzeko Funtsean (TEPEF) metatu ziren 2008tik 2011ra bitarteko urteen artean hasierako bidalketaren %5a gainditu zuten TEFFFeko likidazio negatiboak.

2011ko abenduaren 31n TEPEFean metatuta zeuden zenbatekoen zati bat itzuli zuten Arabako toki erakundeek 2012tik 2016ra bitarteko ekitaldietan zehar. 2017ko ekitaldian, EUDELek Arabako Foru Aldundiari toki erakunde bakoitzean hori banakatzea hainbat aldiz eskatu eta gero, 2017ko urterako Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontua gauzatzeko 17/2016 Foru Arauaren Bosgarren Xedapen Gehigarrian bete da eskatutako banakatzea.

Beste alde batetik, 2016ko ekitaldiko TEFFFaren likidazio positiboa TEPEFean aplikatzearen ondorioz, toki erakundeen zorra kitatuta gelditu zen 2017ko urtarrilaren 1ean, Vitoria-Gasteizko Udalarena izan ezik, zeinaren saldoa 14,3 milioi eurokoa zen 2018ko abenduaren 31n. Ildo horretan, 2018ko ekitaldian zehar toki erakundeek 2017ko ekitaldiko 2,6 milioi euroko zenbatekoaren likidazio positiboaren milioi erdi euro inguru jaso dituzte; gainerako kopurua Arabako hiriburuak kitatu beharra zeukan zorrak eragindako TEPEFaren konpentsaziora bideratu zen.

Aurreko guztiaren eraginez, Vitoria-Gasteizko Udalak kitatu beharreko saldoa berdintzen joango da 2021. urtera bitartean, TEFFFaren parte-hartze osagarriaren %2aren gutxieneko zenbateko baliokidea eta Vitoria-Gasteizko Udalari dagozkion TEFFFaren likidazio positiboak aplikatzearen ondorioz. Kontuan hartu behar da, 2011. urtera bitartean, ehuneko hori Vitoria-Gasteizko Udalak jasotzen zuela, eta 2012ko ekitaldiaz geroztik TEPEFaren amortizazioaren zati bihurtu zela, 2011ko abenduaren 20ko 77/2011 Foru Araua aplikatzearen ondorioz.

Vitoria-Gasteizko Udalari dagokion TEPEFean metatutako saldoa ez da zenbatzen finantza-iraunkortasunaren mugak zehazteko garaian.

2018ko abenduaren 31n, TEPEFean metatutako zorra 14,3 milioi eurokoa da guztira, eta Vitoria-Gasteizko Udalak kitatu beharreko kopuruari dagokio oso-osorik.



Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua

EUDELen ordezkariek:

Marta Ajuria, BILBOko Zinegotzia

Álvaro Parro, BALMASEDAko Alkatea

Borja Liaño, MUSKIZko Alkatea

Mikel Torres, PORTUGALETEko Alkatea

Iñigo Gaztelu, LARRABETZUKo Alkatea

Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua

2019ko otsailaren 18an bildutako Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluan, 2018ko ekitaldiko Udal Finantzaketako Foru Funtsaren (Udalkutxa) likidazioa zehaztu zen.

2018Ko likidazioa

Behin betiko likidazioa 869,5 milioi eurokoa da, hau da, hasierako aurrekontua baino %6,12 handiagoa. **(6. taula)**

6.TAULA

	2018ko aurrekontua €	2018ko likidazioa €	Aldea €	%
Bizkaia - Udalkutxa	819.321.375	869.492.575	50.171.200	%6,12

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2019ko otsailaren 14an hartutako erabakitik eratorritako gainerako lurraldeentzako ezohiko konpentsazio gisa azaldutako 2.827.070,5 euroko zenbatekoa jaso izana sartzen da likidazioan.

2019ko ekitaldian zehar, Bizkaiko udalerriek 50,2 milioi euro gehiago jasoko dituzte, 2018ko ekitaldian kontura emanda jaso duten kopuruaz gain.

Aurreko ekitaldietako likidazioak

EUdalkutxaren saldoa positiboa da Bizkaiko udalentsat, lehenagoko ekitaldietako likidazio negatiboek eragindako zor ordaindu gaberik ez baitute pilatu; horrelakoak 2017ko abenduaren 31n kitatu ziren behin betiko. Horren harira, 2018ko ekitaldian zehar 2017ko ekitaldiko likidazio positibotik eratorritako 12,1 milioi euroko gehigarria jaso dute.



Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseilua

EUDELen ordezkariak:

Aitor Aldasoro, BEASAINgo Alkatea

Ane Beitia, ELGOIBARKo Alkatea

Jaime Dominguez-Macaya, DONOSTIAko zinegotzia

Iraitz Lazkano, ELGETAko Alkatea

Estitxu Elduaen, AZPEITIAko Alkateordea

Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseilua

2019ko otsailaren 15ean bildutako Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluan, 2018ko ekitaldirako Udal Finantzaketako Foru Funtzaren (UFFF) likidazioa zehaztu zen.

2018ko likidazioa

Behin betiko likidazioa 514,6 milioi eurokoa da, hau da, hasierako aurrekontua baino %5,92 handiagoa. **(7. taula)**

7.TAULA	2018ko aurrekontua €	2018ko likidazioa €	Aldea €	%
Gipuzkoa - UFFF	485.806.651	514.574.097	28.767.446	%5,92

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2019ko otsailaren 14an hartutako erabakitik eratorritako ezohiko konpentsazio gisa azaldutako 4.041.029 euroko zenbatekoa jaso izana sartzan da likidazioan.

Gipuzkoako udalerriek 2019ko ekitaldian 28,8 milioi euro gehiago jasoko dituzte, 2018ko ekitaldian zehar kontura emanda jaso duten kopuruaz gain.

Aurreko ekitaldietako likidazioak

Gaur egun, Gipuzkoako udalek ez dute Foru Aldundiarekiko zorrik metatu lehenagoko ekitaldietako likidazio negatiboengatik; horrelakoak 2017ko abenduaren 31n kitatu ziren behin betiko.


Baldintzatu gabeko udal finantzaketarako foru funtsak (€/biztanle)

Ondorengo grafikoko datuak interpretatu ahal izateko, kontuan hartu beharra dago honako hau:

- (1) Foru Funtsetako likidazioetatik eratorritako datuak direnez, ez dira kontuan hartzen lurralde bakoitzean likidazio negatiboagatik hartutako diru-itzulera erabakiak.
- (2) Biztanleria iturria: INE. Biztanleria zenbakiak une bakoitzean aztergai den ekitaldiko urtarrilaren 1ari dagozkion kopuru ofizialak dira. 2019ko ekitaldirako, 2018ko urtarrilaren 1eko biztanleria-kopuru ofizialak hartu dira.
- (3) Gipuzkoako 2011ko likidazioan, 2012ko eta 2013ko likidazioetan (hiru lurraldeetan), Bizkaiko 2014koan, eta Arabako 2015eko eta 2016koetan, berreskuratutako opor fiskalak sartuta daude. Halaber, 2013ko likidazioan sartuta dago Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoari (7,8 milioi euro) eta Arabari (2,2 milioi euro) balantzeak eguneratsetik eratorritako diru-bilketagatik ordaintzen dien konpentsazioaren azalpenarekin udalei dagokien zenbatekoa.
- (4) 2017ko aurrelikidazioetan sartuta daude Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan erabakitako Lurralde Historikoei emateko konpentsaziotik eratorritako zenbatekoak. Horren helburua da Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoan hartutako erabakien eredian Euskadiko erakundeak txertatzeak haientzat izandako eragina neutralizatzea.
- (5) 2018ko ekitaldian, ezohiko konpentsazio bat gehitu da; Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiak abonatuak dizkie Arabari 1.613.112 euro eta Gipuzkoari 4.041.029 euro.
- (6) Lurralde bakoitzak eskura dituen baliabideen ehuneko desberdina eskaintzen dio udal finantzaketari: Udalkutxa %56koa da, UFFF %58koa (2011n %57koa, 2012an %57,5koa, 2013az geroztik %58koa), TEFFF %52,3koa, eta 2018az geroztik %52,8koa (gainerako %3,7a Obra eta Zerbitzuen Foru Plana da, eta gainerako %0,5a biztanleko zenbat euroko ratioaren kalkuluan jaso gabeko obra txikien eta bidezidorren planari dagokio).

3.GRAFIKOA

Euroak biztanleko. Foru Funtsen Likidazioa



	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019 (Aurre.)
Araba	516	539	585	560	599	617	649	698	699
Bizkaia	634	656	634	653	641	664	703	756	756
Gipuzkoa	504	539	543	586	610	626	651	714	719
Euskadi	575	600	597	618	625	645	678	734	735

I. Eranskina

ARABA - TEFFF: 2018an kontura emandako kopuruak eta 2018ko likidazioa, udalen arabera banakatuta €

UDALA	2018ko kontura emateak	2018ko likidazioa	Aldea	%
ALEGRÍA-DULANTZI	1.527.258	1.617.104	89.845	%5,88
AMURRIO	5.690.958	6.029.300	338.343	%5,95
AÑANA	100.799	105.553	4.755	%4,72
ARAMAIO	818.066	865.601	47.535	%5,81
ARMIÑÓN	94.011	98.373	4.362	%4,64
ARRAIA-MAEZTU	251.412	265.177	13.765	%5,47
ARRAZUA-UBARRUNDIA	435.132	459.837	24.705	%5,68
ARTZINIEGA	977.062	1.034.084	57.021	%5,84
ASPARRENA	863.114	913.353	50.238	%5,82
AYALA/AIARA	1.100.180	1.164.671	64.491	%5,86
BAÑOS DE EBRO/MAÑUETA	154.204	162.147	7.943	%5,15
BARRUNDIA	294.336	310.671	16.335	%5,55
BERANTEVILLA	169.807	178.699	8.892	%5,24
BERNEDO	175.381	184.606	9.225	%5,26
CAMPEZO/KANPEZU	430.669	455.141	24.472	%5,68
ELBURGO/BURGELU	207.998	219.172	11.175	%5,37
ELCIEGO	564.301	596.709	32.408	%5,74
ELVILLAR/BILAR	181.070	190.614	9.544	%5,27
IRUÑA OKA/IRUÑA DE OCA	1.256.253	1.330.065	73.812	%5,88
IRURAZ-GAUNA	176.776	186.086	9.310	%5,27
KRIPAN	108.024	113.211	5.187	%4,80
KUARTANGO	153.820	161.755	7.935	%5,16
LABASTIDA/BASTIDA	869.558	920.154	50.597	%5,82
LAGRÁN	72.372	75.440	3.068	%4,24
LAGUARDIA	827.914	876.047	48.134	%5,81
LANCIEGO/LANTZIEGO	320.828	338.708	17.880	%5,57
LANTARÓN	314.690	332.243	17.553	%5,58
LAPUEBLA DE LABARCA	409.256	432.409	23.153	%5,66
LEGUTIO	831.984	880.412	48.428	%5,82
LEZA	132.593	139.242	6.648	%5,01
LAUDIO/LLODIO	11.320.840	11.995.134	674.294	%5,96

UDALA	2018ko kontura emateak	2018ko likidazioa	Aldea	%
MOREDA DE ÁLAVA/ MOREDA ARABA	121.448	127.437	5.989	%4,93
NAVARIDAS	132.743	139.406	6.663	%5,02
OKONDO	610.225	645.370	35.145	%5,76
OYÓN-OION	1.675.055	1.773.740	98.685	%5,89
PEÑACERRADA-URIZAHARRA	100.724	105.487	4.763	%4,73
ERRIBERAGOITIA/RIBERA ALTA	259.712	273.975	14.263	%5,49
RIBERA BAJA/ERRIBERA BEITIA	550.942	582.609	31.666	%5,75
AGURAIN/SALVATIERRA	3.022.773	3.201.826	179.053	%5,92
SAMANIEGO	170.288	179.188	8.900	%5,23
SAN MILLÁN/DONEMILIAGA	241.256	254.419	13.164	%5,46
URKABUSTAIZ	565.650	598.177	32.527	%5,75
VALDEGOVÍA/GAUBEA	334.891	353.648	18.757	%5,60
HARANA/VALLE DE ARANA	98.326	102.942	4.616	%4,69
VILLABUENA DE ÁLAVA/ ESKUERNAGA	157.483	165.620	8.137	%5,17
VITORIA-GASTEIZ	162.387.753	162.387.753	0	%0,00
YÉCORA/IEKORA	143.685	150.999	7.314	%5,09
ZALDUONDO	106.440	111.533	5.093	%4,78
ZAMBRANA	145.432	152.867	7.435	%5,11
ZIGOITIA	789.591	835.485	45.894	%5,81
ZUIA	1.135.320	1.201.815	66.496	%5,86
TEPEFa likidazio positiboarekin konpentsatzea	0	9.688.164	9.688.164	-
2%ko tarte osagarria	3.079.936	3.264.042	184.107	%5,98
GUZTIRA	206.660.340	218.928.224	12.267.884	%5,94
VITORIA-GASTEIZKO Udala: Gizarte-ongizateko zerbitzuak	2.485.382	2.485.382	0	%0,00

ITURRIA: 175/2019 akordioa, Arabako Foru Aldundiko martxoaren 12ko Foru Gobernu Kontseilua. Norberak egindakoa.

II. Eranskina

BIZKAIA-UDALKUTXA: 2018an kontura emandako kopuruak eta 2018ko likidazioa, udalen arabera banakatuta €

UDALA	2018ko kontura emateak	2018ko likidazioa	Aldea	%
ABADIÑO	4.851.325	5.152.410	301.084	%6,21
ABANTO Y CIÉRVANA - ABANTO ZIERBENA	5.965.079	6.336.461	371.382	%6,23
AJANGIZ	402.982	423.297	20.314	%5,04
ALONSOTEGI	1.929.015	2.045.649	116.634	%6,05
AMOREBIETA - ETXANO	11.372.655	12.085.353	712.697	%6,27
AMOROTO	461.923	485.958	24.034	%5,20
ARAKALDO	228.745	238.062	9.317	%4,07
ARANTZAZU	335.242	351.281	16.039	%4,78
AREATZA	919.940	972.883	52.943	%5,76
ARRANKUDIAGA	796.558	841.714	45.156	%5,67
ARRATZU	404.003	424.382	20.379	%5,04
ARRIETA	493.446	519.470	26.024	%5,27
ARRIGORRIAGA	7.616.867	8.092.506	475.640	%6,24
ARTEA	631.287	666.012	34.724	%5,50
ARTZENTALES	718.065	758.267	40.202	%5,60
ATXONDO	998.644	1.056.556	57.911	%5,80
AULESTI	644.323	679.870	35.547	%5,52
BAKIO	1.818.594	1.928.258	109.665	%6,03
BALMASEDA	4.960.038	5.267.984	307.946	%6,21
BARAKALDO	60.034.403	63.818.529	3.784.126	%6,30
BARRIKA	992.697	1.050.233	57.536	%5,80
BASAURI	24.881.636	26.446.992	1.565.356	%6,29
BEDIA	745.411	787.339	41.928	%5,62
BERANGO	4.290.305	4.555.979	265.674	%6,19
BERMEO	9.969.550	10.593.686	624.136	%6,26
BERRIATUA	923.017	976.154	53.138	%5,76
BERRIZ	3.056.649	3.244.457	187.808	%6,14
BILBAO	310.191.145	329.185.720	18.994.576	%6,12
BUSTURIA	1.143.621	1.210.683	67.062	%5,86
DERIO	3.915.120	4.157.113	241.993	%6,18

UDALA	2018ko kontura emateak	2018ko likidazioa	Aldea	%
DIMA	1.177.138	1.246.316	69.177	%5,88
DURANGO	17.183.501	18.262.967	1.079.466	%6,28
EA	672.463	709.786	37.323	%5,55
ELANTXOBE	311.962	326.531	14.569	%4,67
ELORRIO	4.562.035	4.844.859	282.825	%6,20
ERANDIO	14.823.757	15.754.281	930.524	%6,28
EREÑO	381.386	400.337	18.951	%4,97
ERMUA	10.495.681	11.153.025	657.344	%6,26
ERRIGOITI	496.587	522.809	26.222	%5,28
ETXEBARRI	6.907.953	7.338.847	430.894	%6,24
ETXEBARRIA	661.181	697.792	36.611	%5,54
FORUA	635.789	670.797	35.008	%5,51
FRUIZ	429.218	451.188	21.970	%5,12
GALDAKAO	17.864.439	18.986.885	1.122.445	%6,28
GALDAMES	752.008	794.352	42.344	%5,63
GAMIZ - FIKA	895.496	946.897	51.401	%5,74
GARAI	339.280	355.573	16.293	%4,80
GATIKA	1.136.095	1.202.682	66.587	%5,86
GAUTEGIZ ARTEAGA	659.713	696.232	36.519	%5,54
GERNIKA - LUMO	10.270.143	10.913.252	643.109	%6,26
GETXO	46.792.222	49.740.529	2.948.307	%6,30
GIZABURUAGA	306.014	320.208	14.194	%4,64
GORDEXOLA	1.221.152	1.293.108	71.955	%5,89
GORLIZ	3.753.606	3.985.405	231.799	%6,18
GÜEÑES	4.192.896	4.452.422	259.526	%6,19
IBARRANGELU	698.285	737.238	38.953	%5,58
IGORRE	2.790.900	2.961.935	171.035	%6,13
ISPASTER	651.339	687.329	35.990	%5,53
IURRETA	2.397.207	2.543.392	146.186	%6,10
IZURTZA	285.647	298.555	12.908	%4,52

UDALA	2018ko kontura emateak	2018ko likidazioa	Aldea	%
KARRANTZA HARANA/ VALLE DE CARRANZA	1.969.603	2.088.799	119.196	%6,05
KORTEZUBI	432.366	454.535	22.169	%5,13
LANESTOSA	253.120	263.975	10.855	%4,29
LARRABETZU	1.443.412	1.529.396	85.984	%5,96
LAUKIZ	824.803	871.742	46.939	%5,69
LEIOA	18.679.287	19.853.164	1.173.877	%6,28
LEKEITIO	4.554.325	4.836.664	282.338	%6,20
LEMOA	2.356.818	2.500.454	143.636	%6,09
LEMOIZ	916.372	969.090	52.718	%5,75
LEZAMA	1.598.946	1.694.746	95.801	%5,99
LOIU	1.441.863	1.527.749	85.886	%5,96
MALLABIA	913.416	965.948	52.532	%5,75
MAÑARIA	516.908	544.412	27.505	%5,32
MARKINA - XEMEIN	3.178.692	3.374.203	195.511	%6,15
MARURI - JATABE	696.029	734.839	38.811	%5,58
MENDATA	523.593	551.520	27.927	%5,33
MENDEXA	463.159	487.272	24.112	%5,21
MEÑAKA	577.437	608.763	31.325	%5,42
MORGA	446.262	469.308	23.046	%5,16
MUNDAKA	1.286.047	1.362.098	76.051	%5,91
MUNGIA	10.735.324	11.407.794	672.470	%6,26
MUNITIBAR - ARBATZEGI GERRIKAITZ	571.123	602.049	30.927	%5,42
MURUETA	319.929	335.001	15.072	%4,71
MUSKIZ	4.908.759	5.213.469	304.710	%6,21
MUXIKA	1.097.949	1.162.128	64.179	%5,85
NABARNIZ	396.862	416.790	19.928	%5,02
ONDARROA	5.332.833	5.664.309	331.476	%6,22
OROZKO	1.864.002	1.976.533	112.531	%6,04
ORTUELLA	5.105.539	5.422.668	317.130	%6,21
OTXANDIO	974.020	1.030.377	56.357	%5,79
PLENTZIA	2.814.162	2.986.665	172.503	%6,13
PORTUGALETE	27.676.872	29.418.657	1.741.786	%6,29
SANTURTZI	27.312.867	29.031.678	1.718.810	%6,29
SESTAO	16.852.833	17.911.428	1.058.595	%6,28

UDALA	2018ko kontura emateak	2018ko likidazioa	Aldea	%
SONDIKA	2.858.936	3.034.265	175.329	%6,13
SOPELA	8.407.860	8.933.426	525.565	%6,25
SOPUERTA	1.696.059	1.797.990	101.931	%6,01
SUKARRIETA	340.992	357.393	16.401	%4,81
TRUCIOS - TURTZIOZ	638.813	674.013	35.199	%5,51
UBIDE	241.276	251.383	10.108	%4,19
UGAO - MIRABALLES	2.643.615	2.805.354	161.738	%6,12
URDULIZ	2.672.967	2.836.558	163.591	%6,12
URDUÑA - ORDUÑA	2.638.417	2.799.827	161.410	%6,12
VALLE DE TRÁPAGA - TRAPAGARAN	7.167.759	7.615.051	447.293	%6,24
ZALDIBAR	2.018.746	2.141.044	122.298	%6,06
ZALLA	5.329.865	5.661.153	331.289	%6,22
ZAMUDIO	2.163.578	2.295.018	131.439	%6,08
ZARATAMO	1.096.851	1.160.960	64.110	%5,84
ZEANURI	1.091.344	1.155.106	63.762	%5,84
ZEBERIO	934.622	988.492	53.870	%5,76
ZIERBENA	1.041.038	1.101.625	60.587	%5,82
ZIORTZA-BOLIBAR	491.837	517.760	25.923	%5,27

ITURRIA: www.bizkaia.eus (Udalnet). Norberak egindakoa.

III. Eranskina

GIPUZKOA- UFFF: 2018an kontura emandako kopuruak eta 2018ko likidazioa, udalen arabera banakatuta €

UDALA	2018ko kontura emateak	2018ko likidazioa	Aldea	%
ABALTZISKETA	281.698	298.379	16.681	%5,92
ADUNA	377.755	400.124	22.369	%5,92
AIA	1.355.047	1.435.288	80.240	%5,92
AIZARNAZABAL	548.314	580.783	32.469	%5,92
ALBIZTUR	287.095	304.095	17.001	%5,92
ALEGIA	1.137.761	1.205.134	67.373	%5,92
ALKIZA	305.548	323.641	18.093	%5,92
ALTZAGA	195.459	207.033	11.574	%5,92
ALTZO	328.735	348.201	19.466	%5,92
AMEZKETA	646.569	684.856	38.287	%5,92
ANDOAIN	9.624.970	10.194.920	569.951	%5,92
ANOETA	1.315.378	1.393.269	77.891	%5,92
ANTZUOLA	1.423.890	1.508.206	84.317	%5,92
ARAMA	213.508	226.151	12.643	%5,92
ARETXABALETA	4.593.575	4.865.588	272.012	%5,92
ARRASATE / MONDRAGÓN	14.497.166	15.355.627	858.462	%5,92
ASTEASU	999.577	1.058.767	59.191	%5,92
ASTIGARRAGA	3.863.830	4.092.630	228.800	%5,92
ATAUN	1.107.131	1.172.691	65.560	%5,92
AZKOITIA	7.639.099	8.091.454	452.356	%5,92
AZPEITIA	9.671.357	10.244.054	572.697	%5,92
BALIARRAIN	178.596	189.171	10.576	%5,92
BEASAIN	9.135.074	9.676.015	540.941	%5,92
BEIZAMA	192.518	203.919	11.400	%5,92
BELAUNTZA	229.927	243.542	13.615	%5,92
BERASTEGI	725.188	768.131	42.943	%5,92
BERGARA	9.687.239	10.260.877	573.638	%5,92
BERROBI	435.686	461.486	25.800	%5,92
BIDANIA-GOITZ	398.776	422.390	23.614	%5,92
DEBA	3.644.129	3.859.919	215.790	%5,92
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	132.189.486	140.017.197	7.827.711	%5,92

UDALA	2018ko kontura emateak	2018ko likidazioa	Aldea	%
EIBAR	18.115.896	19.188.644	1.072.748	%5,92
ELDUAIN	229.154	242.723	13.570	%5,92
ELGETA	735.193	778.728	43.535	%5,92
ELGOIBAR	7.660.600	8.114.229	453.629	%5,92
ERRETERIA	26.041.534	27.583.605	1.542.071	%5,92
ERREZIL	453.524	480.380	26.856	%5,92
ESKORIATZA	2.690.288	2.849.596	159.308	%5,92
EZKIO	358.916	380.169	21.253	%5,92
ITSASO	187.897	199.024	11.126	%5,92
GABIRIA	371.428	393.423	21.994	%5,92
GAINTZA	163.781	173.479	9.698	%5,92
GAZTELU	187.492	198.594	11.102	%5,92
GETARIA	1.860.963	1.971.162	110.198	%5,92
HERNANI	12.984.520	13.753.409	768.889	%5,92
HERNIALDE	281.460	298.127	16.667	%5,92
HONDARRIBIA	11.175.028	11.836.766	661.739	%5,92
IBARRA	2.802.070	2.967.997	165.927	%5,92
IDIAZABAL	1.505.922	1.595.096	89.174	%5,92
IKAZTEGIETA	379.888	402.383	22.495	%5,92
IRUN	40.852.507	43.271.622	2.419.115	%5,92
IRURA	1.176.303	1.245.959	69.656	%5,92
ITSASONDO	466.689	494.325	27.635	%5,92
LARRAUL	233.059	246.860	13.801	%5,92
LASARTE-ORIA	11.897.927	12.602.472	704.546	%5,92
LAZKAO	3.625.994	3.840.710	214.716	%5,92
LEABURU	309.390	327.711	18.321	%5,92
LEGAZPI	5.592.200	5.923.347	331.147	%5,92
LEGORRETA	943.306	999.165	55.859	%5,92
LEINTZ-GATZAGA	225.065	238.393	13.327	%5,92
LEZO	3.975.190	4.210.584	235.394	%5,92
LIZARTZA	428.992	454.395	25.403	%5,92

UDALA	2018ko kontura emateak	2018ko likidazioa	Aldea	%
MENDARO	1.335.919	1.415.027	79.108	%5,92
MUTILOA	239.419	253.596	14.177	%5,92
MUTRIKU	3.539.134	3.748.707	209.573	%5,92
OIARTZUN	6.734.120	7.132.886	398.767	%5,92
OLABERRIA	665.551	704.962	39.411	%5,92
OÑATI	7.493.698	7.937.443	443.746	%5,92
ORDIZIA	6.473.033	6.856.339	383.306	%5,92
ORENDAIN	214.700	227.414	12.714	%5,92
OREXA	165.686	175.498	9.811	%5,92
ORIO	3.845.905	4.073.643	227.738	%5,92
ORMAIZTEGI	861.730	912.758	51.028	%5,92
PASAIA	10.737.475	11.373.304	635.829	%5,92
SEGURA	960.841	1.017.738	56.897	%5,92
SORALUZE - PLACENCIA DE LAS ARMAS	2.606.268	2.760.600	154.332	%5,92
TOLOSA	12.634.445	13.382.605	748.159	%5,92
URNIETA	4.154.017	4.400.000	245.984	%5,92
URRETXU	4.430.933	4.693.314	262.381	%5,92
USURBIL	4.070.109	4.311.124	241.015	%5,92
VILLABONA	3.892.789	4.123.303	230.515	%5,92
ZALDIBIA	1.028.492	1.089.395	60.903	%5,92
ZARAUTZ	15.219.530	16.120.767	901.237	%5,92
ZEGAMA	995.104	1.054.030	58.926	%5,92
ZERAIN	240.402	254.638	14.236	%5,92
ZESTOA	2.465.455	2.611.449	145.994	%5,92
ZIZURKIL	1.975.954	2.092.962	117.008	%5,92
ZUMAIA	6.467.803	6.850.799	382.996	%5,92
ZUMARRAGA	6.487.175	6.871.318	384.143	%5,92

ITURRIA: Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseilua. Norberak egindakoa.

Udal Finantzaketa

Udalen parte-hartzea zerga itunduetan.
2018ko LIKIDAZIOA



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS